



## UDAL EUSKATEGIEN FINANTZAKETA-EREDU BERRIA

Azaroaren 25eko 29/1983 legeak, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortaraztekoak eta Euskaltegiak araupetzekoak, bere bigarren artikuluan dio HABEren egitekoak izango direla, besteak beste, helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko euskaltegiak sustatzea, arazoizko planifikazio bat lortzen saiatuz eta irizpide soziolinguistikoak kontuan hartuz.

Era berean, apirilaren 7ko 2/2016 legearen, Euskadiko Toki Erakundearen 7. xedapen gehigarriak berariazko araubide bat ezarri zuen tokiko musika-eskolen eta udal-euskaltegien finantzaziorako, hitzarmen bidez artikulatzekoa. Udal-euskaltegien kasuan, batzorde misto bat eratuz eta deituz. Batzordearen helburua da aztertzea nola gauzatu euskaltegi horien finantzaketa eta horrekin lotutako beste alderdi batzuk aipatutako hitzarmenen bitartez.

Lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak eta HABEko presidentek atseginez hartzen du EUDELek otsailaren 2an igorritako idatzian egindako balorazio positiboa eta egoki deritzo abiatutako bideari jarraipena ematea.

HABEren asmoa akordio honi lau urteko iraupena ematea da, hau da, 2029-2030 ikastertera arte. Abiapuntuan HABEk 81 euroko modulua proposatzen du 2026-2027 ikasterterako eta urtez urte egin beharreko eguneratzeetarako sektore publikoan herri-langileentzat onartzen diren igoerak ezarriko dira. Modulu hori bider euskaltegi bakoitzak arauz burututako jarduera-unitateak izango da HABEren dirulaguntza. Horiek horrela, dirulaguntza horrek, udalak berak jarritako kopuruak eta ikasleen matrikulek osatuko dute euskaltegien finantzaketa helduen euskalduntzea burutzeko.

Lau urte horietan finantzaketa sistema honen bidez aurreko sisteman baino diru gutxiago jasoko luketen udal euskaltegiei HABEk diru gehiago emango lieke galera hori berdintzeraino, betiere eusten badiete esleitutako jarduera-unitateei eta 1966. urtean edo lehenago jaiotako langileen hirurteko kopuruan gastatutakoan jaitsierarik ez badago 2025-2026 ikasturtearekiko. Jarduera-unitate horietan eta udal euskaltegiek arestian aipatutako pertsonen antzintasun-kostuan jaitsiera gertatuz gero, proportzioan doituko lirake galera horiek. Beraz, HABEk bere gain hartuko luke lau ikasturte horietan defizit hori, baina, esan bezala, jarduera-unitate kopuruari eutsiz gero.

HABEk ahaleginak egiten ditu udal euskaltegiak kokatzen diren eragin-eremuko egoera soziolinguistikoari erreparatzeko. Bide horretatik ari da ikasleen doakotasunean urratsak ematen. Herritarrek ordaindu beharreko matrikulak merkatzeko aspaldi ari da maila gaintzeagatiko dirulaguntzak ematen; eta azken ikasturteetan matrikula ordaintzean ikasleek ordaindu beharrekoa ia doan izateraino heldu da A1 eta A2ko ikasleentzat eta C1 ikasle gazteentzat. Ildo horretatik jarraitzeko asmoa du HABEk Gobernu programan jasota dauden urratsak emateko asmoz.



HABEk duen lan-eremua helduen euskalduntze-alfabetatzea da, eta hori bermatu eta lagundu nahian eman ditu, besteak beste, arestian aipatutako urratsak herritarrak euskarara hurbildu eta ikas dezaten. Euskararen sustapenari lotutako egitekoetan, gaur egun indarrean dagoen legediari erreparatuz, HABEk ez du lekurik, arautegia betez, idatzian aipatzen diren esparruetan jarduteko.

HABEren ustez metodologia berri honek dirulaguntzen kudeaketa asko erraztuko du, eta, horretaz gain, euskaltegiek egindako lanak hobeto babestuko ditu, egindako jarduera izango baita beti dirulaguntza gai.

Bestalde, erakunde publikoen arteko sinergiak baliatu nahi dira ikasle gehiago euskaltegietara erakartzeko. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak landutako matrikulazio-kanpainaren inguruko koordinazio-lana egingo da EUDELekin, ahal dela 2026-2027 ikasturteari begira. Kanpainaren edukien eta garapenaren berri EUDELi emango zaio, haren ekarpenak jasotzeko eta lankidetzat instituzionala errazteko. Horretan, garrantzi berezia emango zaio erakunde parte-hartzaileen aurkezpen bateratuari.

Amaitu baino lehen, lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak eta HABEko presidentek EUDELi eskertu nahi dio bide hau urratzeko emandako erraztasunak eta berriro ere adierazi Eusko Jaurlaritzarentzat erronka honi erantzuteko ahalegin ekonomikoa handia dela, besteak beste, aintzat hartuta legealdi honetan euskararen erabilera areagotzeko beste zenbait esparrutan ditugun erronkak: sektore sozioekonomikoan, esparru digitalean, aisialdian, sektore publikoan, transmisioan, etab.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko maiatzaren 25ean

Ibone Bengoetxea Otaola  
Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta  
Kultura eta Hizkuntza-Politika sailburua

Esther Apraiz Fernández la Peña  
EUDELeko presidentea